



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos



MEMORIA

GIZA ESKUBIDEAK

Donostiako Udala

**Donostiako Udaleko Giza Eskubideen
Bulegoak, Bakearen eta Giza
Eskubideen Etxearen bidez (Aiete
Jauregia) lan egiten du bake kultura
hedatzeko, giza eskubideak sustatzeko
eta oroimen historikoa berreskuratzen.
Betiere beste udal atal, erakunde,
elkarte eta hainbat herritarrekin batera.**



**20
22**

BIKTIMEI AITORPENA	4
In Memoriam	4
• Elena Moreno eta Miguel Paredes-en omenezko plaka	6
• Eugenio Olacireguiren omenezko plaka	7
• Francisco Javier Gómez Elóseguren omenezko plaka	8
• Josu Leonet Azkune eta José Ángel Santos Larangaren omenezko plaka	9
• Juan de Dios Doval de Mateoren omenezko plaka	10
• Oroimenaren Eguna	11
OROIMEN HISTORIKOA	12
• Nazien kontzentrazio-esparruetara erbesteratutako biktima donostiarrei omenaldia	14
• Ikerketa: milizianoak, polloeko matxinatu frankisten mausoleoan	15
• Polloeko mausoleo frankistaren plaka	16
• Oroimen Historikoaren ibilbideak	17
• Frankismoak udal langileen bizitzaren aurka eragindako krimenen kontrako kereila	18
• "Oroimenaren bidea", bisita antzeztuak	19
• Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna	20
• Polloeko mausoleo frankistari esanahi berria emateko akordioa	21
NAZIOARTEKO EGUNAK	22
• LGTBI Kolektiboaren Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna	24
• Haurren Egun Unibertsala	25
• Bizia alderdiaren hiriak / Heriotza zigorraren aurkako hiriak	26
• Hiesaren aurkako Nazioarteko Eguna	27
• Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna	27
ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK	28
Arte eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 18. ekitaldia	30
DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA	32
Donostiako Giza Eskubideen 19. Zinemaldia	
• Aurkezpena	34
• Sariak eta palmaresa	37
Elkarteentzako dirulaguntzak	38
Giza Eskubideei buruzko XXVI. ikastaroak	39

In memoriam

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen memoria, egia jakiteko eskubidea, justizia, erreparazio morala eta duintasuna babesteko konpromiso sendoari eusten dio.

Udalak biktimen aitortpen eta oroimenezko ekimenak egin ditu. Besteak beste, plakak jartzen jarraitu du: 1960 eta 2020 urte bitartean ETAk, Batallón Vasco Españolek eta GALEk eraildako donostiarren nahiz hirian bertan hil zituzten pertsonen oroimenez; baita poliziaren biolentzia jasan dutenen oroimenez ere. Biktima horiek guztiak Eusko Jaurlaritzaren honako dokumentu honetan bildu dira: [Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri.](#)

2022ko abendura arte, honako pertsonak oroitzeko 24 plaka jarri dira, erailak izan ziren tokietan: Juan Maria Araluce, José María Elícegui Díez, Antonio Palomo Pérez, Luis Francisco Sáenz Flores, Alfredo García González, Gregorio Ordóñez, Francisco Martín González, Fernando Múgica Herzog, Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta, Miguel Paredes, Elena Moreno, Daniel Garrido Velasco, Eugenio Olaciregui, Francisco Javier Gómez Elósegui, Josu Leonet Azkune, José Ángel Santos Laranga eta Juan de Dios Doval de Mateo -guztiak ETAk erailak-, Enrique Cuesta, Antonio Gómez eta Juan Manuel García Cordero -Komando Autonomo Antikapitalistak taldeak erailak-, Begoña Urroz Ibarrola -DRIL talde armatuak eraila-, María José Bravo del Valle -Batallón Vasco Español taldeak eraila- eta Joseba Barandiaran Urkola -poliziaren ekintzak eragindako biktima-.





BIKTIMEI
AITORPENA



Elena Moreno eta Miguel Paredes-en omenezko plaka

Urtarrilak 15

Donostiako Udalak plaka bana jarri zuen, ETAk 1990ean hil zituen Miguel Paredes eta Elena Moreno oroitzeko.



Ekitaldia Parte Zaharreko San Lorenzo kalean izan zen, eta bestetan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal taldeetako ordezkariak, biktimen senideak eta hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Miguel Paredes (33 urte) eta Elena Moreno (30 urte) senar-emazteak 1991ko apirilaren 6an hil ziren, ETAk suzko arma batekin egindako atentatu batean, San Lorenzo kaleko Txiki tabernatik irteten ari zirela.

Javier Marcos Espiga, 18 urtekoa eta Logroñokoa, ere balaz zaurituta geratu zen ezustean bertatik igarotzen ari zenean. Gaztea-soldadutza egiten ari zen, Pasaiko Itsas Komandantzian.



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu





Eugenio Olacireguiren omenezko plaka


Urtarrilak 29

Donostiako Udalak plaka jarri zuen, ETAk 1997an hil zuen Eugenio Olaciregui oroitzeko.



Ekitaldia Ategorrieta-Uliako Bordatxipi kaleko 14. zenbakian izan zen, eta beste ekitaldietan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal taldeetako ordezkariak, biktimen senideak eta hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Eugenio Olaciregui Bordak, 39 urteko bizikleta saltzaileak, garondoa tiro bat jaso zuen ETAK egindako atentatu batean, lankide baten zain zegoela Oiartzungo bere lantokira joateko.





Francisco Javier Gómez Elóseguiaren omenezko plaka

Martxoak 12

**Donostiako Udalak plaka jarri zuen, ETak 1997an hil zuen
Francisco Javier Gómez Elósegui oroitzeko.**

Ekitaldia Gros auzoko Bermingham kaleko 37. zenbakiaren inguruan izan zen, eta bestetan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal taldeetako ordezkariak, biktimen senideak eta hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Francisco Javier Gómez Elósegui, 37 urtekoa eta Martuteneko espetxeko psikologo funtzionarioak, garondan tiro bat jaso zuen lanera joateko bere etxetik atera zenean, ETak egindako atentatu batean.



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu





Josu Leonet Azkuneren eta José Ángel Santos Larangaren omenezko plakak

Uztailak 2

Donostiako Udalak plaka bana jarri zuen, ETAk 2001ean hil zituen
José Ángel Santos eta Josu Leonet oroitzeko.



Ekitaldia Martuteneko tren geltokiaren
parean izan zen eta, bestean bezala,
omenaldi xumea egin zen. Bertan,
Donostiako alkate Eneko Goiak, udal
taldeetako ordezkariak, biktimen senideak
eta hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Jose Angel Santosek eta Josu Leonetek,
40 eta 31 urtekoak hurrenez hurren,
Elektra enpresan lan egiten zuten. Urrutitik
aktibatutako bonba-auto baten biktimak
izan ziren, Martuteneko industrialdeko
beren lanpostuetara zihoazenean.
Atentatua Iñaki Dubreuil Ordiziako PSE-
EEko zinegotziari zuzenduta zegoen.



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu





Juan de Dios Doval de Mateoren omenezko plaka

Urriak 29

**Donostiako Udalak plaka bat jarri zuen, ETAk 1980ko urriaren 31n hil zuen
Juan de Dios Doval de Mateo oroitzeko.**



Ekitaldia Juan Olasagasti kalearen eta Tolosa etorbidearen elkargunean, Lorea auzoan, izan zen. Bestetan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal taldeetako ordezkariak, biktimen senideak eta hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Juan de Dios Doval de Mateos, 37 urtekoa, Zuzenbide Prozesaleko irakaslea zen Donostiako EHUKo Campusean, Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) exekutibako kidea eta bigarrena Eusko Legebiltzarrerako Gipuzkoako zerrendetan. Bi semearen aita, Lorea auzoan bizi zen. Ibilgailuaren barruan ezustean harrapatu zuten, eta suzko armaz egin zioten tiro.



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu



Oroimenaren Eguna

Azaroak 10

Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei.

Ekitaldia Alderdi Ederreko lorategietan kokatutako biktimen omenezko *Oroimena* monolitoan egin zen. Udal korporazioaren talde politiko guztiek, erakundeetako ordezkariak, biktimek eta, oro har, herritarrek parte hartu zuten.


Minutu batzuetako isilunea egin eta lore eskaintza egin zuten, udal Txistulari bandarekin batera.



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu







OROIMEN
HISTORIKOA



Nazien kontzentrazio- esparruetara erbesteratutako biktima donostiarrei omenaldia

Urtarrilak 26

Eneko Goia Donostiako alkateak, Ane Oyarbide Berdintasuna, Elkartasuna eta Giza Eskubideen zinegotziak eta nazien kontzentrazio-esparruetara erbesteratutako pertsonen senideek omenaldia egin zieten biktimei, Aieteko lorategietan dagoen *Urdina* eskulturaren ondoan. Eskultura horrek gogorarazten ditu 1940-1945 urte bitartean nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako biktima donostiarrak.

1945eko urtarrilaren 27an ekitaldi instituzional bat egin zen, Auschwitz-Birkenauko nazien kontzentrazio- eta sarraski-esparruko tropa sobietarren askapena ospatzeko. Hori dela eta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak ofizialki data hori izendatu zuen Holokaustoaren Biktimak Oroitzeko Nazioarteko Eguna izateko.



Egun horretan, Aieteko Kultur Etxean Etxahun Galparsoro historialariak hitzaldia eman zuen *Kontzentrazio-eremuak eta emakumeak* izenburupean.

Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu





Ikerketa: milizianoak, Polloeko matxinatu frankisten mausoleoan

Maiatzak 16

[Aranzadi Zientza Elkartek](#), Donostiako Udalak eskatuta, Polloeko hilerrian dagoen Martirien Mausoleoan gutxienez 17 miliziano eta gudari lurperatu zituztela erakusten duen dokumentazio historikoa aurkitu zuen.

1939an eraikitako mausoleo horrek plaka bat zuen, gaztelaniaz idatzitako honako testuarekin: *"A la memoria de los asesinados por defender sus ideales, de Dios y España. Una oración por sus almas. (Beren idealak defendatzeagatik*

eraildako en oroimenez, Jainkoa eta Espainia. Otoitz bat haien arimen alde)". Donostiako Udalak plaka kendu egin zuen, Oroimen Historikoaren legea ez betetzeagatik.

Ikerketen arabera, 17 miliziano eta gudari lurperatu zituzten mausoleoan, eta, ziur aski, ikerketa fasean dauden beste 14 gehiago ere bai. Ehortzien artean PCEko, CNTko, UGTko eta Herri Milizietako milizianoak daude.

Dokumentazio hori Donostiako Udal Artxiboan eta hilerrian bertan aurkitu zuten, eta Gogora Institutuaren esku utziko dute, aztertuz, gorpuzkiak aurkituz, lurpetik atera eta, hala badagokio, identifikatzeko.



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu





Polloeko mausoleo frankistaren plaka

Maiatzak 25

[Polloeko hilerri](#)ko langileek Martirien Mausoleoaren hilobiko plaka kendu zuten; idazkunak lurperatutako matxinatu frankisten memoria jasotzen zuten.

Ane Oyarbide Giza Eskubideen zinegotziak adierazi zuenez, *"Udalak Aranzadiri duela gutxi eskatutako txosten baten arabera, panteoi horretan, gutxienez, Donostiaren defentsan parte hartu zuten 17 milizianoaren eta gudariren gorpuzkiak zeuden. Era berean, txostenak berretsi egin zuen mausoleo horren udal-titulartasuna, eta bere bi aldeetan Memoria Historikoaren Legea betetzen ez zuen plaka bana zuen, eta, beraz, kendu eta biltegiratu egin dira"*.

Plakak gaztelaniaz idatzitako honako testu hau zuen: *"A la memoria de los asesinados por defender sus ideales, de Dios y España. Una oración por sus almas. (Beren idealak defendatzeagatik eraildako oroimenez, Jainkoa eta Espainia. Otoitz bat haien arimen alde)"*





Oroimen Historikoaren ibilbideak

Urtarrila-ekaina

DBHko 4. mailako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko 1.000 ikaslek baino gehiagok Memoria Historikoaren Ibilbideetan parte hartu zuten 2021-22 ikasturtean.

Urtero egiten den jarduera honek aukera ematen die ikastetxeei 1936ko estatu-kolpean eta ondorengo diktadura frankista garaian hirian esanguratsuak izandako tokiak zeharkatzeko.

Bisitek, Koma Zerbitzu Kulturalak dinamizatuta, harrera ona izan dute ikasleen artean, ikasgeletan gerrari eta frankismoari buruz ematen diren edukien osagarri baitira.



1

ABIATZEA

Easo plazako kioskoa

2

BABESLEKUA

Garai bateko suhiltzaileen eraikina

3

ATXIKITZE LEKUA

San Jose ikastetxea

4

BONBARDAKETA LEKUA

San Martzial kalea 48-50

5

KOMUNIKABIDEAK ETA ZENTSURA

Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzea

6

BORROKA LEKUA

Maria Cristina hotela

7

FUSILAMENDU LEKUA

Nautikoaren pasabidea

8

DUAL ESKULTURA



Frankismoak udal langileen bizitzaren aurka eragindako krimenen kontrako kereila

Abuztuak 2

Tokiko Gobernu Batzordeak Donostiako epaitegietan kereila jartzea adostu zuen, hain zuzen, erregimen frankistak udal langile eta kargu publikoen bizitzaren aurkako krimenen kontra.

Udal **Memoria Historikoaren Kontseilu**

Sektorialeko lantaldeak egindako ikerketaren bidez, txosten bat egin da, heriotza eragin duten eta bere eskubideen urraketa jasan duten 24 udal langile eta kargu publikoen kasuekin. Udalak udal langile eta kargu publiko horietako

hainbat familiarekin harremanetan jartzea lortu du, eta jakinarazi die euren senideen eskubideak aitortzeko eta berrezartzeko asmoa duela.

Horiek horrela, Goiak honakoa azpimarratu zuen: “Ikerketa lan hauei guztiei esker, hain zuzen ere, memoria historikoaren arloan lan egiten duten hainbat entitatek eta elkartek garatutako proiektuei esker, pausoak ematen ari gara hiriko historian garrantzi handia izan zuen garaia gogora ekarri eta ezagutarazteko”.

“Oroimenaren bidea”, bisita antzeztuak

Iraila/urria

Urtero, Donostiako Udalak bisita antzeztuak antolatzen ditu, altxamendu militar frankistan gure hirian gertatutakoa ezagutzera emateko asmoz.

Bisitak iraileko larunbatetan egiten dira, eta zuzenean edo zeharka gerra zibilaren hondamendiak sufritu zituzten pertsona guztiei egindako omenaldi bat dira. Ekimenak lagunduko du gure historiaren garai samin bateko lekuak eta pertsonaiak oroimenean gordetzen. 237 lagunek parte hartu zuten.

Donostiarrek garai hartan bizi izan zituzten uneak kontatzen eta antzezten dituzte bi

antzezlek, ordu eta erdiz hiriko zazpi puntutan, Xabier López Askasibarrek idatzitako gidoiari jarraituz.





Polloeko mausoleo frankistari esanahi berria emateko akordioa

Iralak 13



Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, [Gogora](#) Institutuaren bitartez, Polloeko mausoleo frankistari esanahi berria ematea erabaki zuten. Frankismoan lurperatutako 17 gudari eta miliziano aurkitu dituzte bertan.

Hiria matxinatuek hartu zutenetik 86 urte bete ziren egun berean, eta Polloeko hilerrian bertan, hilobian lurperatutako borrokalari errepublikanoen memoria duintzeko egingo diren jarduerak iragarri zituzten Eneko Goia Donostiako alkateak, Ane Oyarbide Berdintasun, Elkartasun eta Giza Eskubideen zinegotziak, Beatriz Artolazabal, Eusko Jaurlaritzako [Berdintasun](#), [Justizia eta Gizarte Politiketako](#) sailburuak, José Antonio Rodríguez Ranz, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordeak eta Aintzane Ezenarro Gogorako zuzendariak.

Ekitaldian biktimen senideak eta [Aranzadi Zientzia Elkarte](#)ko Lourdes Herrasti antropologoa izan ziren, aurkikuntza ekarri duen ikerketaren egilea, hain zuzen.

Alkateak iragarri zuenez, Udalak eskultura bat jarriko du biktimen omenez. Gainera, Gogorarekin lankidetzan, plaka bat jarriko dute, hilobi horretan lurperatuta dauden 17 gudari eta milizianoen izenekin, eta haiek oroitzeko omenaldia egingo zaie.





Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna

Irailak 13

Irailaren 13an, Donostiako Memoria Historikoaren Egunean, 86 urte bete ziren tropa frankistak hirian sartu zirela.

Hori dela eta, urtero bezala, lore-eskaintza egin zen *Dual* monolitoan, gerra zibilaren eta frankismoaren biktimak oroitzeko.

Donostiako Udaleko udalbatza osoak parte hartu zuen, Eneko Goia alkatea buru zela, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiarekin eta Aintzane Ezenarro [Gogora](#)ko zuzendariarekin batera.

Era berean, hainbat memoria-egile elkarteren ordezkariak eta zenbait herritarrek bat egin zuten Donostiako Udaleko [Memoria Historikoaren Kontseiluak](#) deitutako ekitaldiarekin.

Ekitaldi xume honen bidez, Udalak omenaldia egin nahi izan zien 1936ko kolpe frankista nahiz diktadura urteetako biktimei eta askatasun demokratikoen defendatzaileei.

Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu








LGTBI Kolektiboaren
Eskubideen aldeko
Nazioarteko Eguna

Haurren Egun
Unibertsala

Biziaren aldeko hiriak
Heriotza zigorraren
aurkako hiriak

Hiesaren aurkako
Nazioarteko Eguna

Giza Eskubideen
Nazioarteko Eguna





NAZIOARTEKO
EGUNAK



LGTBI Kolektiboaren Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna

Ekainak 28

LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna zela eta, Udalak [Adierazpen Instituzionala](#) onartu zuen, non, besteak beste, eraso LGBTIfobikoak erabat arbuiatzen dituen eta kolektibo horretako pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko beharra berresten duen.

Nekane Arzallus jarduneko alkateak eta udal talde guztietako ordezkariak irakurri zuten Adierazpen Instituzionala udaletxeko terrazan. Gainera, alfonbra erraldoi bat jarri zen udaletxeko sarrerako eskaileretan, ostadar bat zuena, LGTBI kolektiboaren sinboloa.

Era berean, Kursaal sexuaniztasunaren koloreekin argiztatu zen, eta ospakizunari buruzko kartelak erakutsi zituzten Dbuseko autobusek, kiroldegiek, kultur etxeek eta bestelako ekipamenduek. Easo kalean LGTBIQ+ fobiaren aurkako panel handi bat jarri zen.



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu





Haurren Egun Unibertsala

Azaroak 20

Donostiako Udaleko [Giza Eskubideetako](#), [Gazteriako](#) eta [Kultur Aniztasuneko](#) udal atalek, [Donostia Kultura](#)rekin batera, hainbat jarduera antolatu zituzten Haurren Egun Unibertsala ospatzeko.

Hiriko Haurtxokoetan eta Gaztelekuetan, haur eta gazteei erronka bota zitzaien, haien emozioez jabe daitezen sustatzeko, *Gure eskubideak eraikitzen* jolas kooperatiboaren bidez; hain zuzen, haurren eskubideei buruz hausnartzen da arteaz baliatuz, *Emozioak entzuten* eta *Gure eskubideak eraikitzen* izeneko jolas bidez.

Gainera, azaroaren 23an, Intxaurrendoko Kultur Etxean, [Haurren Egun Unibertsalaren 6. festa](#) egin zen. Elisabeth Echeveste aritu zen ipuin kontalari, eta munduko abestiak nahiz olerkiak entzun ziren Ana Molina eta Josie Yañezen eskutik, eta beste hainbat sorpresa ere izan ziren.

Udal-liburutegietako [Ipuinaren ordua](#) haurrentzako eskubideei buruzkoa izan zen aste osoan.





Biziaren aldeko hiriak Heriotza zigorraren aurkako hiriak


Azaroak 30



Donostiako hiriak bat egin zuen *Biziaren aldeko hiriak / Heriotza zigorraren aurkako hiriak* nazioarteko ekimenarekin. Sant'Egidio Komunitateak bultzatzen du jarduera hau, eta, duela 20 urtetik, urtero, azaroaren 30ean munduko hainbat hiritan egiten da.

Heriotza zigorraren ezeztapena aldarrikatzeko kolore gorritz argiztatu zuten Donostiako udaletxearen aurrealdea. 2021. urtean 579 pertsona exekutatu zituzten 18 herrialdetan, Amnesty Internationalek aditzera emandako datuen arabera.

2016an, Donostiako Udalak erakunde adierazpena onartu zuen. Honela, konpromisoa hartu zuen bere eskumeneko arlo guztietan informazio eta sentsibilizazio espazio egokiak sortzeko heriotza zigorra gaitzesteko.





Hiesaren aurkako Nazioarteko Eguna

Abenduak 1

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Bulegoaren eta Musika eta Dantza Eskolaren bidez, Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkarrekin batera, HIESaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zuen.

Hala, abenduaren 1ean, kartelak jarri zituzten begizta gorriekin -HIESaren aurkako borrokaren ikurra- udal-ekipamenduek, garraio publikoak eta Udalak. Kursaalaren eta Udalaren fatxada gorriz argiztatu zituzten.

Gainera, kontzentrazioa egin zen Kalkutako Teresa plazan, HIESaren memorialaren ondoan. Hainbat elkartek manifestua irakurri zuten eta Musika eta Dantza Eskolako ikasleek zenbait koreografia eskaini zituzten Tabakaleran. Gune horretan informazio mahaia jarri zituzten.



Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

Abenduak 10

[*Aporofobia STOP*](#) pieza eszenikoa taularatu zuten Antzoki Zaharrean. Zaurgarritasun egoeran edo etxerik gabe dauden pertsonak dira protagonistak. Zehazki, Iruñeko Paris 365 jantoki solidarioaren erabiltzaileak dira.

Diziplina anitzeko ikuskizuna da, Ados Teatroak, Asinsound-ek eta Bidebitarte-k sortu eta koproduzitutako *work in progress* sorkuntza-prozesuaren emaitza.

Aporofobian pobreekiko beldur- edo arbuio-egoerak agertzen dira, eta egoera horiek, askotan, beste gaitz batzuen jatorrian daude, hala nola xenofobian, homofobian edo arrazismoan.

Donostiako Udaleko Lankidetzak eta Giza Eskubideen Bulegoak antolatu du ikuskizuna, Donostia Kulturaren laguntzarekin.







ARTEA ETA
GIZA ESKUBIDEAK



25 ikastetxetako, haurtxokoetako, gaztelekuetako eta arte-akademietako haurren eta gazteen 1.500 margolan inguruk parte hartu zuten Giza Eskubideen Sailak antolatutako Artearen eta Giza Eskubideen 18. Haur eta Gazteen edizioan.



Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 18. ekitaldia

Urria - apirila

Aurkeztutako obra guztiak, ingurumenaren ingurukoak, Victoria Eugenia antzokian ikusgai izan ziren, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren esparruan.

Sari-banaketa apirilaren 3an izan zen, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretuan, eta sarituek eta haien familiek parte hartu zuten.

Sariak banatu zituzten Ane Oyarbide Berdintasun, Giza Eskubide, Hezkuntza eta Gazteria zinegotziak, epaimahaikideek, Elena Odriozola ilustratzaileak eta Ricardo Ramón Dibulitoon enpresako animaziozko filmen ekoizleak.

Gainera, *Bazen behin irudi bat...* liburua ere argitaratu zen. Bertan, marrazki sarituez gain, aurkeztutako marrazki guztien artean epaimahai ofizialak egindako aukeraketa bat dago.







DONOSTIAKO GIZA
ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Donostiako Giza Eskubideen 19. Zinemaldia

Apirilaren 1etik 8ra

[Zinemaldiak](#) 24 nazionalitateko 40 film ([24 film luze](#) eta [16 film labur](#)) eman zituen, Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean.

[Sei erakusketa](#) antolatu ziren: "Afrotopia" (Héctor Mediavilla) Aiete Kultur Etxean; "Emakumeen aurkako indarkeria nazioarteko gatazketan" eta "Bizitza" (Gervasio Sánchez kazetaria), Okendo Kultur Etxean eta San Telmo Museoa, hurrenez hurreneta "Emakumeen aurkako indarkeria nazioarteko gatazketan" (Gala Rocabert Navarro eta Anna-Lina Mattar) FNACen.



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu





19

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2022

1 - 8 apirila / abril / April

Human
Rights
Film
Network

Connecting
human rights
film festivals
around the world



www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

Babesleak / Patrocinan / Sponsors



Parte-hartzaileak / Participan / Participants



Antolatzaileak / Organizan / Organizers



Laguntzaileak / Colaboran / Collaborators





Gainera, Eskurak antolatutako Giza Eskubideei buruzko Baliabide Pedagogikoen 4. Azoka egin zen, Victoria Eugenia antzokian.

[Euskadiko Garapenerako GKEen](#)

[Koordinakundeak Begira TÚ](#) giza eskubideei buruzko online jokoaren bigarren edizioa eskaini zuen. Martuteneko espetxean saio berezia izan zen presoentzat.

Programazioa osatzeko, solasaldiak egin ziren protagonisten, zinemagileen eta filmetan jorratutako gizarte-sakonerako gaietan adituak diren pertsonen eskutik, baita ikastetxeetarako zinea ere.





Sariak eta palmaresa

Giza Eskubideen eta Zinemaldiaren [Abidin Kaïd Saleh](#) Mendebaldeko Saharako Ikus-entzunezko Prestakuntza Eskolari ematea erabaki zuten Zinemaldiaren antolatzaileek

Celina Escher-en [Nuestra libertad](#) filmak (Suhar-El Salvador, 2021) film luze onenaren Publikoaren Saria jaso zuen. Sari, 3000 euroko ordainsaria duena.

Sarah Beddingtonen [Fadia's Tree](#) filmak (Erresuma Batua, 2021) film luze onenaren Nazioarteko Amnistia Saria jaso zuen, eta Joel Ramírezen [Prescindibles](#) laburmetraiak (Espainia, 2021), 3.000 euroko film labur onenaren Gazte Epaimahaiaren saria.





Elkarteentzako dirulaguntzak

Donostiako Udalak 40.240 euro bideratu zituen giza eskubideen sustapena helburu duten 22 proiektu diruz laguntzera.

Laguntzen helburua da babestea bakea, bizikidetzaz, giza eskubideak, aniztasunarekiko errespetua eta memoria historikoa berreskuratzeko lanetan diharduten hiriko eragile sozialek eta elkarteek zuzendutako ekimenak eta proiektuak.



Giza Eskubideei buruzko XXVI. ikastaroak

2022ko urritik 2023ko apirilera

26 urte bete dituzte Donostiako Udaleko Giza Eskubideen bulegoaren babesarekin EHUK antolatutako Giza Eskubideen ikastaroak.

Aurtengo edizioan, besteak beste, gaurkotasuneko gaiei buruzko hausnarketa egingo dute. Hala nola, multinazionalak eta giza eskubideak, immigrazioa, Afganistango giza eskubideen egoera edo gutxiengo erlijiosoak aztertuko dituzte.

Parte-hartzaileen artean daude Nieves Concostrina kazetari eta idazlea, Nazina Nezrabi jueza eta Alba Sotorra zinema-zuzendaria.

Ikastaroak osatzeko, batetik, hiru beka emango dira, ikasleak Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Irakaskuntzako Urteko Bilkurara joan daitezen; eta bestetik, txosten guztiak jasotzen dituen urteko argitalpen bat egin da.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos



20
22

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea

Giza Eskubideen Saila

Aieteko Jauregia

Aiete Pasealekua 65, 20009 Donostia

943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus

www.donostia.eus/gizaeskubideak